

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Gure zerbitzuak bezeroekin komunikatzeko hainbat baliabide erabiliko ditugu. Lehen pauso gisa, giza baliabideak eta baliabide intelektualak eskuratuko ditugu. Esate baterako, webgune bat sortzea erabaki dugu. Hainbat enpresen proposamenak eta ideiak azaltzearen xedea izango du webgune honek, non gure zerbitzuak eta lanak ikus ditzazten bezeroek. Webgune hau plataforma izango da, enpresaren lehentasunak eta zerbitzuak argitaratzeko, hortaz gain bezeroei gure ofertak ezagutzeko eta sarean zehar konektatzeko aukera emango die.

Webgunea prest dagoenean, enpresen artean banaketa kanala martxan jarriko da. Enpresako posta elektronikoaren bitartez informazioa bidaliko dugu, eskaintzen ditugun zerbitzuak, berritasunak eta abantailak azaltzeko helburuarekin. Hau da, bezeroek enpresarekin komunikatzeko modu pertsonalizatu bat eskaintzeko estrategia izango da.

Gure lanak batez ere ikastetxeetarako zuzenduta daude. Gainera, hainbat sektoretan lan egiten dugunean, ikastetxeen beharrak eta intereseak kontuan hartzen ditugu. Horrela, gure bidalketa estrategia ikastetxeen behar eta esperientziak ere kontuan hartuko ditu, helburuak haien errealitatearekin bat etorriz. Hau guztia ikusita, finantzia baliabide batzuk behar ditugu, antolatutako klaseak behar bezala gauzatu daitezen. Enpresa hauei 200€-ko laguntza finantziala eskatuko dizkiegu.

Esan bezala eskolentzako zuzenduta dago, batez ere. Hortaz, baliabide fisiko batzuk erabiliko ditugu batik bat, katalogo ezberdinak bidaltzea da gure aukera. Ikastetxeetan eskainiko ditugun zerbitzuak eta produktuak azaltzen dituzten katalogoak zehazki, haien artean interesgarriak izango diren materialak eskaini ahal izateko. Hau da, gure zerbitzuak haien beharretara egokituz, salmentakanalik egokiena izatea lortuko dugu.

Gure strategiaren barruan, ikastetxeetako zuzendariak dituzten hitzaldiak ere hartuko ditugu. Hala ere, hitzaldi hauetan haien ikastetxeetako eguneroko erronkak eta beharrak ezagutuko ditugu, eta, hortaz, gure zerbitzuak hobetzeko eta haien helburuei hurbiltzeko erabiliko dituzten estrategiak aztertuko ditugu. Hitzaldi hauetan, ikastetxeek gure zerbitzuak nola onartzen dituzten eta haien esperientziak ikastetxearen jarduerara nola eragiten duten aztertuko dugu.

Azkenik, gure helburua da enpresa desberdinak ikastetxeetan aurkeztea, zerbitzuak eta proposamenak haien komunitatearen artean zabaltzeko. Komunikazio kanalak berritu eta egokitzeke arduratu hartuko dugu, gure webgunea eta enpresaren posta elektronikoa erabiliz. Hori guztia, bezeroekin harreman estua eta erabilgarria izateko bideak zabalduko dizkigu.